



BORRADOR

**2021eko KUDEAKETA PLANA
GIPUZKOAKO BIZIKLETAREN ESTRATEGIARENA**



Aurkibidea

1.	AURKEZPENA	3
2.	KUDEAKETA PLANAREN HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK	5
3.	PROGRAMAZIOA	
	4.1. 2021ean egiteko jarduerak, ardatz estrategikoen arabera	6
	4.2. Egiteko programak, arlo eta ardatz estrategikoen arabera	11
4.	AURREKONTUAREN LABURPENA	
	5.1. Ardatz estrategikoen arabera	32
	5.2. Programen arabera	33



1. AURKEZPENA

Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia 2014-2022, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren batzarrak 2015eko martxoaren 24an onartu zuena, bizikleta bidezko mugikortasunaren arloan Foru Aldundi honen politika eta jardura ildoak orientatzen dituen tresna da.

Horiek gauzatzeko aldera, Estrategiak urteko Kudeaketa Plana prestatzea aurreikusten du. Kudeaketa Plan horretan jasoko da urte horretan egin beharreko jardura programen multzoa bizikleta bidezko mugikortasunaren arloan, helburuak lortzean aurrera egite aldera.

Bestalde, Kudeaketa Plana ezinbesteko oinarria da urtero egiteko dagokion Bizikletaren Estrategiaren ebaluazio txostena. Txosten hori gero Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluan aurkeztuko da, eztabaidatu eta baliozkotzeko¹. Txosten horretan adieraziko da Estrategian ezarritako helburuak eta programaturiko jarduerak zenbateraino gauzatu diren.

Plan hau 2021. ekitaldirako onarturiko aurrekontuan oinarrituta egituratu da. Aurrekontu hori Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dute, bizikleta bidezko mugikortasunerako, eta 6.266.122 euroko zenbatekoa² du.

Beharrezkoa da ohartaraztea txosten honetan agertzen diren bizikleta bideak eraikitze inbertsio batzuek Europako Batzordearen dirulaguntzak jaso ditzaketela, Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren (EGEF) bidez. Laguntza horiek ez dute aurrekontua igotzen, baizik eta jada eginiko jarduerak finantzatzen dituzte.

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuari dagokio, eman zaizkion eskumenengatik, Estrategiaren jardura guztiak gidatu eta koordinatzea, bere Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren bidez. Zalantzarik

¹ Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren araudiak 4. artikuluan ezartzen du bere jardura eremua Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia egin, garatu eta ebaluatzerara mugatzen dela.

² Zenbateko honetan ez daude sartuta Bizikleta Bideen Foru Sarea zaintzeko lanei dagozkien gastuak, hiru guneean trafikoa lasaitzeko jardueren gastuak edo bizikleta bidezko mugikortasunaren arloko jardueren ardura duten langile publikoen kostua.



gabe, haren helburua da gainerako foru departamentuen partaidetza lortzea, haien ekintzak edo eskumen esparruak nolabait eragina badu bizikleta bidezko mugikortasunean. Horrela beteko da Estrategia honen helburua, alegia, parte hartzen duten departamentu guztiak sartzea, bizikletaren politika zeharkakoa baita berez.

BORRADOR



2. KUDEAKETA PLANAREN HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK

Gipuzkoako Bizikletaren Estrategiaren 2021eko Kudeaketa Planaren helburu nagusiak hauek dira:

- a) Estrategian aurreikusiriko lan ildorik gehienak aktibatzeneko ahalegina egitea.
- b) Aurreko ekitaldietan hasiriko eta horrela eskatzen duten jarduerari jarraipena ematea.
- c) Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialetik datozen jarduerak sartzeari buruzko Estrategia honentzat erreferentziazko dokumentu arautzailea eta plangintzakoa.
- d) Ustez garrantzi handiena lor dezaketen eta urtean zehar egiteko aukera gehien izan dezaketen programak aukeratzea, eta, bereziki, «Gipuzkoan bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzeko presazko jardueren diagnostikoa eta garapena» dokumentuan ezarritakoak. Dokumentu hori Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak enkargaturikoa da.



3. PROGRAMAZIOA

3.1. 2021ean egiteko jarduerak, ardatz estrategikoen arabera

Urteko Kudeaketa Planean programatzen diren jarduerak, jarduera horien jatorri diren ardatz estrategikoen barnean aurkezten dira.

Ardatz estrategikoa	Aukeraturiko programak ³	Jarduerak
1. Udal / hiri azpiegituren eta zerbitzuen sareak osatu eta hobetzea.	1.1 Udal azpiegiturak eta zerbitzuak sortzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> Udalentzako dirulaguntzen deialdia, bizikleta bideak/oinezko bideak eraikitzeke proiektuak idazteko edo bide horiek eraiki, berritu eta hobetzeko proiektuak gauzatzeko. Jarduerak udalerriekin eta erakundeekin lankidetzan, Bizikletaren Estrategia garatzeko.
	1.2 Udal azpiegitura eta zerbitzuetan prestatzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> «Bizikletaren eta oinezkoen aldeko esperientzien jardunaldiak». IV. edizioa. Mugikortasun jasangarriko proiektuak garatzen dituzten udalekin webinar bat antolatzea, haien beharrak eta erronkak ezagutzeko. Bizikleta bidezko mugikortasunaren arloko laguntza espezializatuko zerbitzua, udaleko eta eskualdeko garapen agentzietako langile teknikoentzat.

³ Hemen hautatu diren programek Gipuzkoako Bizikletaren Estrategiak erabilitako zenbaketa jarraitzen dute, aurreko urteetan eginiko Urteko Kudeaketa Planekin eta ebaluazio txostenekin konparatzeko eta hobeto identifikatzeko. Horregatik, kasu batzuetan jauzi batzuk daude zenbaketa horretan, aldi berean ez delako programatu Estrategiaren indarraldi osorako aurreikusitako programazio guztia.



Ardatz estrategikoa	Aukeraturiko programak ³	Jarduerak
2. Foru azpiegitura eta zerbitzu sareak osatzea eta hobetzea.	2.1 Foru azpiegiturak eta zerbitzuak sortzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko Foru Sareko tarte berrietan inbertitzea. Bizikletak nork berak konpontzeko guneak mantentzea.
	2.2. Oinarrizko Foru Sarea zaintzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko Foru Sarea zaintzeko inbertsioa. Argiztapena hobetzea Azkoitia – Urretxu tartean.
	2.3 Foru azpiegiturak berritzeko eta hobetzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko Foru Sarearen jarraipena: kontagailuak zaintzea eta berriak eskuratzea. Oinarrizko Foru Sarearen irisgarritasuna, jarraitutasuna, zaintze lanak eta seinaleztapena hobetzeko jarduerak.
4. Bizikletaren eta motordun ibilgailu kolektiboen intermodalitatea hobetzea.	4.1 Bizikleta-autobusa intermodalitatea sustatzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> Udalerriekin lankidetzan jardutea, bizikleta aparkalekua sortzeko autobus geltoki nagusietan. Bizikleta-autobusa intermodalitatea hobetzeko aukerak aztertzea.
5. Bizikleta turismorako eta naturara iristeko aukera bihurtzea.	5.1 Nazioarteko bizikleta sareak bultzatzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> EuroVelo Koordinatzeko Zentro Nazionalari eta mugaz gaindiko beste ekimen batzuei laguntza ematea. EuroVelo ziurtagiri ofiziala eskuratzea Behobia - Enderlatsa tarterako.
	5.2 Bizikleta barne hartzen duten turismo produktuak sustatzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> Inplikaturiko eragileekin lankidetzan, bizikletari loturiko turismoko proposamen integrala egiteko.
7. Bizikletaz ibiltzea sartzea	7.1 Bizikletaren erabileran trebetasunak	<ul style="list-style-type: none"> Hiriko txirrindularitzako prestatzaileen gaikuntza profe-



Ardatz estrategikoa	Aukeraturiko programak ³	Jarduerak
ikastetxeetan, iristeko eta prestakuntzako elementu gisa.	eskuratzeko prestakuntza programa.	<p>sionaleko ikastaroa, Trafikoko Zuzendaritza Nagusia-rekin lankidetzan.</p> <ul style="list-style-type: none"> Bizikletaren erabilera sustatzen duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen sarea antolatzea.
8. Bizikleta sustatzea laneko zentroetara iristeko.	8.1 Foru Aldundiko lantokietara oinez eta bizikletaz iristeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> Bizikleta aparkalekuen eskaintza GFAko lantokietan. Zerbitzuko bizikleten foru parkea hobetzea.
9. Bizikletaren eta mugikortasunaren gaineko pertzepzio soziala aldatzea.	9.1 Helduen bizikleta bidezko zirkulazioko trebetasunak areagotzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko Foru Sarearen funtzionamendu arauak azaltzeko bideoa eta txostena egitea, erabiltzaile mota desberdinen arteko bizikidetzak hobetzen laguntzeko.
	9.3 Bizikleta sustatzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> gipuzkoabizikletaz.eus web gunea eguneratzea eta dinamizatzea. «Bizikletaz» aldizkaria argitaratzea. Ziklobide bat antolatzea. Bonoak ematea bizikleten doikuntzak egiteko.
	9.4 Erakunde sozialek bizikleta sustatzeko dituzten ekimenetarako pizgarrien programa.	<ul style="list-style-type: none"> Dirulaguntzen urteko deialdia.
	9.5 Bizikleta bidez gizarteratzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> Bizikletak modu selektiboan jasotzea eta ondoren bererabiltzea eta/edo konpontzea.
	9.6 Kanpoko lankidetzarako programa, mugikortasun iraunkorarekin eta bizikletarekin lotuta.	<ul style="list-style-type: none"> Mugaz gaindiko Lankidetzak Hitzarmenaren 2020-2024 Jarduera Plana zabaltzea.
	9.7 Mugikortasun jasangarriaren eta bizikleta bidezko mugikortasunaren	<ul style="list-style-type: none"> Bizikleta bidezko mugikortasun elektrikoaren berrikuntza sustatzea.



Ardatz estrategikoa	Aukeraturiko programak ³	Jarduerak
	arलोko berrikuntza programa.	
10. Bizikletari babesa emateko plangintza eta arau esparru bat sortzea.	10.1 Bizikletarekin loturiko beste araudi eta gomendio batzuk garatu eta hobetzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> • Udal erakundeei eta udalei bideraturiko dirulaguntzen deialdia, Mugikortasun Jasangarriko Planak egiteko. • Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala berrikustea. • Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuek eta ziklomotorrek Oinarrizko Foru Sarean izan dezaketen eragina aztertzea. • «Bizikleta bidezko mugikortasuna udal ordenantzetan sartzeko gomendio teknikoak» izeneko txostenari buruzko gogobetetze inkesta ateratzea.
11. Bizikletaren politika kudeatzeko tresnak sendotzea edo sortzea.	11.1 Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua dinamizatzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> • Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua suspertzea
	11.2 Gipuzkoako Bizikletaren Behatokia dinamizatzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko Foru Sareko txirrindularien eta oinezkoen joan-etorrien zenbaketari buruzko datuak ustiatzea. • Oinarrizko Foru Sarearen erabiltzaileei inkesta egitea. • Zikloteka, Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazio Zentroa, kudeatu eta dinamizatzea, Cristina Enea Fundazioarekin batera. • Gipuzkoako hiriko eta hiri inguruko txirrindularien istripu indizeari buruzko ikerketa lan bat egiteko beka, genero ikuspegia aintzat harturik. • Gipuzkoako bizikleta baliabideen mapa bat egitea.



3.2 Egiteko programak, arlo eta ardatz estrategikoen arabera⁴

Ardatz estrategikoak bi multzo handitan banatu dira, ondoren azterketa bereizia egin ahal izateko:

1. Azpiegiturak eta zerbitzuak.
2. Sustapena, kudeaketa eta erregulazioa.

Aurreko ataletik bereiziz, kasu honetan programazioa jasotzen duten koadroek zehaztasun handiagoa eskaintzen dute garatu beharreko jardueri dagokienez, izan ere, bertan azaltzen dira aurreikusitako edukiak, aurrekontuaren kalkulua eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak (Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia gidatu eta koordinatzeko arduradunak) zer erakunde eta eragileren partaidetza aurreikusten duen jarduera bakoitza garatzeko.

⁴ Hemen hautaturiko programek Gipuzkoako Bizikletaren Estrategiaren zenbaketa jarraitzen dute; horrela, jauziak daude bertan, Kudeaketa Plan honek ez baititu aldi berean garatzen aurreikusitako programa guztiak.



1. ARLOA: Azpiegiturak eta zerbitzuak

1. Udal azpiegituren eta zerbitzuen sareak osatu eta hobetzea

Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatua
1.1 Udal azpiegiturak eta zerbitzuak sortzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> Udalentzako diru laguntzen deialdia, bizikleta bideak/oinezko bideak eraikitzeko proiektuak idazteko edo bide horiek eraiki, berritu eta hobetzeko proiektuak gauzatzeko. 		2021. urteari dagokion deialdia egitea.	500.000,00€
	<ul style="list-style-type: none"> Jarduerak udalerriekin eta erakundeekin lankidetzan, Bizikletaren Estrategia garatzeko. 		Lankidetzan jarduerak ezartzeko orduan, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sarea erabiltzea sustatzeko helburuarekin.	350.000,00€



Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatu
1.2 Udal azpiegitura eta zerbitzuetan prestatzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> «Bizikletaren eta oinezkoen aldeko esperientzia jardunaldiak». IV. edizioa. 	Cristina Enea Fundazioa	Jardunaldi hauen IV. edizioa antolatzea. Jardunaldiak udaleko eta eskualdeko langile teknikoentzat eta kudeatzaileentzat dira, bai eta mugikortasun aktibo eta jasangarrian inplikaturiko eragile ekonomiko eta sozialentzat ere. Oraingo honetan, Gipuzkoako hiriko eta hiri inguruko txirrindularien istripu indizeari buruzkoak izango dira.	2.500,00€



2. Foru azpiegitura eta zerbitzu sareak osatzea eta hobetzea

Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatuak
2.1 Foru azpiegiturak eta zerbitzuak sortzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko Foru Sareko tarte berrietan inbertitzea. 	Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua	<ol style="list-style-type: none"> Arroa – Zumaia tarte eraikitzea. Donostia – Astigarraga tarte eraikitzea. Villabona – Irura tarte eraikitzea. Hernani – Andoain tarte eraikitzea. Lezo – Pasai Donibane tartearen III. fasea gauzatzea. Lasarte – Txikiardi tartearen II. fasea gauzatzea. Irun eta Donostia arteko bizikleta ibilbidea garatzeko proiektu bat aztertzea. 	3.845.925,00€
	<ul style="list-style-type: none"> Bizikletak nork berak konpontzeko guneak mantentzea. 		Oinarrizko Foru Sarean jarritako bizikletak nork berak konpontzeko guneen mantentze lanak kontratatzea.	1.405,73€
2.2 Foru sarea zaintzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> Bizikleta bideen foru sarea zaintzeko eta seinalezatzeko inbertsioa. 	Bide Azpiegituretako Departamentua	Oinarrizko Foru Sarea zaintzeko lanak egitea; lan horiek errepideak zaintzeko kontratu integraletan sartuta daude.	Bide Azpiegituretako Departamentuaren kontura da goen aurrekontua.



Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulaturia
	<ul style="list-style-type: none"> Argiztapena hobetzea Azkoitia – Urretxu tartean. 		Argiztapena hobetzeko proiektua gauzatzea; Azkoitia - Urretxu tartea; Arditurri; Maltzaga.	Ez da ezagutzen
2.3 Foru azpiegiturak berritzeko eta hobetzeko programa.	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko Foru Sarearen jarraipena: kontagailu berriak eskuratzea eta zaintzea. 	Bide Azpiegituretako Departamentua	Oinezkoen-txirrindularien zenbaketa egiteko kontagailu automatikoen hornikuntza, instalazioa, abian jartzea eta mantentze lanak kontratatzea.	75.000,00€
	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko Foru Sarearen irisgarritasuna, jarraitutasuna, zaintze lanak eta seinaleztapena hobetzeko jarduerak. 	Bide Azpiegituretako Departamentua	Oinarrizko Foru Sarearen irisgarritasuna, jarraitutasuna, zaintze lanak eta seinaleztapena hobetzeko jarduerak. Beharrak lehenestea, ebalazioa eta aurrekontua.	Ez da aurreikusten berriazko gasturik sortuko duenik.



4. Bizikletaren eta motordun ibilgailu kolektiboen intermodalitatea hobetzea

Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatuak
4.1 Bizikleta-autobusa intermodalitatea sustatzeko programa.	Udalerriekin lankidetzan jardutea, bizikleta aparkalekua sortzeko autobus geltoki nagusietan.	GGLA eta udalerrak	GGLAekin eginiko hitzarmen baten bidez, puntu hau garatzeko eta sustatzeko aukera aztertzea.	Ez da aurreikusten berariazko gasturik sortuko duenik.



2. ARLOA: Sustapena, kudeaketa eta erregulazioa

5. Bizikleta turismorako eta naturara iristeko aukera bihurtzea

Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatua
5.1 Nazioarteko bizikleta sareak bultzatzeko programa.	EuroVelo Koordinatzeko Zentro Nazionalari eta mugaz gaindiko beste ekimen batzuei laguntza ematea.	Conseil départemental des Pyrénées Atlantiques	EuroVeloren jarraipen jardueren eta Conseil départemental des Pyrénées Atlantiques-ekin batera eginiko lanaren jarraipena, 2020-2024 Jarduera Planaren esparruan. Jarduera plan hori Mugaz gaindiko Lankidetzaren Hitzarmenetik eratorria da.	1.000,00€ (urteko kuota, Eurovelo Koordinatzeko Zentro Nazionalarekin bat egitea kontzeptu gisa).
	EuroVelo ziurtagiri ofiziala eskuratzeko Behobia - Endarlatsa tarterako.	Eurovelo Koordinatzeko Zentro Nazionala.	Hainbat jarduera egitea EuroVelo ziurtagiri ofiziala eskuratzeko helburuak betetze aldera, I-7 bizikleta bidearentzat (Bidasoa Bailara), Behobia eta Endarlatsa artean.	7.000,00€
5.2 Bizikleta barne hartzen duten turismo produktuak sustatzeko programa.	Inplikaturiko eragileekin lankidetzaren, bizikletari loturiko turismoaren proposamen integrala egiteko.	Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua. Eskualdeko agentziak. Basquetour. Espainiako Trenbi-	Funtsezko eragileekin batera lan egitea, proposamen zehatzak diseinatzeko (bizikletan ibiltzeko ibilbide zirkularrak, bide berdeetan oinarrituriko turismo eskaintza, turismo proposamenak sortzea etapaka,	Ez da ezagutzen



Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatuak
		deen Fundazioa.	eskaintzaren gune gisa bide berdeak jarrita, etab.)	

7. Bizikletaz ibiltzea sartzea ikastetxeetan, iristeko eta prestakuntzako elementu gisa

Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatuak
7.1 Bizikletaren erabilera trebetasunak hartzeko prestakuntza programa.	Hiri txirrindularitzako prestatzaileen gaikuntza profesionaleko ikastaroa.	Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.	Hiri txirrindularitzako prestatzaileen gaikuntza profesionaleko ikastaro bat antolatzea, «1Bici+» gaikuntza metodoa erabiliz, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiko Bide Heziketako Goi Mailako Zentroarekin lankidetzan.	Ez da ezagutzen
	Bizikletaren erabilera sustatzen duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen sarea antolatzea.	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak	DBHko ikastetxeetan txirrindularitza sustatzeko informazioa eta esperientziak aldiro-aldiro trukatzeko sare bat sortzea. Hasteko, interesa luketen ikastetxeak zehaztu behar dira, eta esperientziak trukatzeko eta informazioko lehenengo saio bat egin behar da.	Ez da aurreikusten berriazko gasturik sortuko duenik.



Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatu

8. Bizikleta sustatzea laneko zentroetara iristeko.

Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatu
8.1 Lantokietara oinez eta bizikletaz iristeko ekimenen programa.	Eskualdeko agentzien bidez edo zonako enpresetan bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzen duten elkarten bidez proiektuak eta ekimenak garatzea.		Lanera bizikletan joatea proiektu pilotua garatzea, Gurrpil Artea Elkarteak eta Oarsoaldeak proposatuta, sustatzeko eta emaitzak ebaluatzeko ekimen gisa.	8.900,00€
	Zerbitzuko bizikleten foru parkea hobetzea.	Gobernantzako Departamentua	Zerbitzuko bizikleten foru parkearen egoera aztertzeke txostena idaztea, hobetzeko eta zabaltzeko egin daitezkeen jarduerak batzuk zehazteko.	Ez da aurreikusten berariazko gasturik sortuko duenik.



Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatuak
	GFAko langileen Mugikortasun Jasangarriaren Kudeaketa Plana idaztea.	Gobernantzako Departamentua	Kudeaketa Plan hau idatzi aurretik, online inkesta bat aterako da foru langileen mugikortasun ohiturei, haien jarrerei eta jokabide jasangarriagoa hartzeko duten interesari buruz.	Ez da aurreikusten berariazko gasturik sortuko duenik.

BORRADA



9. Bizikletaren eta mugikortasunaren gaineko pertzepzio soziala aldatzea

Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatua
9.1 Helduen bizikleta bidezko zirkulazioko trebetasunak areagotzeko programa.	Oinarrizko Foru Sarearen funtzionamendu arauak azaltzeko bideoa eta txostena egitea, erabiltzaile mota desberdinen arteko bizikidetza hobetzen laguntzeko.		Produktu horiek egin, argitaratu eta zabaltzearen helburua da erabiltzaile guztientzat mugikortasun seguru bat sustatzea, haien jarrera eta ezagupena hobetzea txirrindularien-oinezkoen foru sarea modu partekatuan erabiltzeari buruz eta haien arteko bizikidetza hobetzea.	15.000,00€
9.3 Bizikleta sustatzeko programa.	gipuzkoabizikletaz.eus web gunea eguneratzea eta dinamizatzea.	IZFE	<p>Web gunea berritzeko lanak kontratatzea, haren egitura hobetzeko, eguneratzeko eta mapa bat sartzeko Gipuzkoan dauden eta txirrindularientzat diren azpi-egitura, zerbitzu eta baliabideekin (bidegorriak, bizikleta aparkalekuak, tailerrak, dendak, alokatzeko guneak, bizikleta publikoak, etab.).</p> <p>Web gune hau kudeatu eta dinamizatze lanak kontratatzea, jende gehiagorentzat, sare sozialen eta Interneten erabiltzaileen ztat, erakargarriak diren edukiak</p>	Ez da ezagutzen



Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatu
			sartzeko.	
	«Bizikletaz» aldizkaria argitaratzea eta banatzea.		Aldizkari hau idatzi, maketatu, inprimatu eta banatzeko zerbitzuak emateko kontratuaren jarraipena.	9.600,00€
	Bonoak ematea bizikleten doikuntzak egiteko.	Bizikleten saltokiak; GGLA	Deialdi bat ateratzea doako azterketak egiteko eta bizikletak doitzeko MUGI txartela dutenentzat.	10.000€
9.4 Erakunde sozialek bizikleta sustatzeko dituzten ekimenetarako pizgarrien programa.	Bizikleta sustatzen duten ekimen sozialei laguntza.	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	Bizikleta garraio bide gisa erabiltzea sustatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzen urteroko deialdia.	50.000,00€
9.5 Bizikleta bidez gizarteratzeko programa.	Bizikletak modu selektiboan jasotzea eta ondoren berrerabiltzea eta/edo konpontzea.	Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua	GFaren eta hiri hondakin solidoen kudeaketaren ardura duten mankomunitateen arteko hitzarmenak sinatzea, bizikletak modu selektiboan jasotzea bermatzeko, ondoren berrerabil daitezzen eta/edo konpondu daitezzen gizarte ekimenen bidez.	Ez da aurreikusten berariazko gasturik sortuko duenik.



Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatuak
9.6 Kanpoko lankidetzarako programa, mugikortasun iraunkorarekin eta bizikletarekin lotuta.	Mugaz gaindiko Lankidetzaren Hitzarmenaren 2020-2024 Jarduera Plana zabaltzea.	Conseil départemental des Pyrénées Atlantiques	Mugaz gaindiko Lankidetzaren Hitzarmeneko 2020-2024 Jarduera Planean jasotako jarduerak egitea, bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzeari lotuak.	Ez da ezagutzen

BORRADOR



Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatuak
<p>9.7 Mugikortasun jasangarriaren eta bizikleta bidezko mugikortasunaren arloko berrikuntza programa.</p>	<p>Txirrindularitza elektrikoaren berrikuntza sustatzea.</p>		<p>Beste erakunde batzuekiko lan-kidetza hitzarmena ezartzea, txirrindularitza elektrikoaren berrikuntza sustatzeko foru programa honen barnean.</p> <p>Bizikletari loturiko Gipuzkoako enpresa eta unibertsitate sektorearen ikerketa eta berrikuntzari laguntza ematea izango litzateke. Bereziki, aldagai elektrikoari dagokionez. Espainian merkaturaturiko 10 ibilgailu elektrikotatik 9 ordezkatzeko dituzte.</p>	<p>Ez da ezagutzen</p>



10. Bizikletari babesa emateko plangintza eta arau esparru bat sortzea

Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatua
10.2 Bizikletarekin loturiko beste araudi eta gomendio batzuk garatzeko eta hobetzeko programa.	10.000 biztanle baino gutxiagoko udalei edo udal erakundeei bideraturiko dirulaguntzak, Mugikortasun Jasangarrirako Planen dokumentazioa idazteko.		2021eko deialdia	250.000€
	Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala berrikustea.		Berau izapidetzeko beharrezkoak diren jardueren hasiera.	Ez da ezagutzen
	Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuek eta ziklomotorrek Oinarrizko Foru Sarean izan dezaketen eraginari buruzko txostena.		Txosten bat idaztea mugikortasun pertsonaleko ibilgailuek eta ziklomotorrek Oinarrizko Foru Sarean izan dezaketen eraginari buruz, eta Bizikleta Bideei buruzko 1/2007 Foru Arauan horietara egokitzeko izan daitezkeen beharrei buruz.	Ez da aurreikusten berariazko gasturik sortuko duenik.
	«Bizikleta bidezko mugikortasuna udal ordenantzetan sartzeko gomendio teknikoak» izeneko txostenari buruzko gogobetetze inkesta ateratzea.		Txosten hau 2017an argitaratu zen, udalei laguntza emateko udal ordenantzetan bizikleta bidezko mugikortasuna sartzeko orduan. Inkestaren helburua da xede hau betetzen den ikustea.	Ez da aurreikusten berariazko gasturik sortuko duenik.



11. Bizikletaren politika kudeatzeko tresnak sendotzea edo sortzea

Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatuak
11.1 Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua dinamizatzeko programa	Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua suspertzea.	Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua	Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua suspertzeko prozesua, tokiko eta eskualdeko ekintza koordinatzeko eta eragiteko gaitasuna emateko.	Ez da aurreikusten berriazko gasturik sortuko duenik.
11.2 Gipuzkoako Bizikletaren Behatokia dinamizatzeko programa.	Oinarrizko Foru Sareko txirridularien eta oinezkoen joan-etorrien zenbaketari buruzko datuak ustiatzea.		Urteko txostena idaztea, txirridulariak eta oinezkoak zenbartzeko kontagailu automatikoen foru sareko datuak ustiatzeari buruzkoa.	Ez du eragiten berriazko gasturik.
	Oinarrizko Foru Sarearen erabiltzaileei urteroko inkesta egitea.		Inkesta hau kontratatzea, erabiltzaileen profilak eta iritziak jarraitzeko helburuarekin.	15.000,00 €
	Zikloteka, Gipuzkoako Bizikletaren Dokumentazio Zentroa, kudeatu eta dinamizatzea.	Cristina Enea Fundazioa	Hitzarmena sinatzea GFA eta Cristina Enea Fundazioaren artean, Ziklotekaren funtzionamendua finantzatzeko.	15.000,00 €
	Gipuzkoako hiriko eta hiri inguruko txirridularien istripu indi-	Cristina Enea Fundazioa.	Ikerketa proiektuaren deialdia. Proiektuaren helburua da iker-	Zikloteka kudeatu eta dinamizatzeko



Programak	Jarduerak	Parte hartzen duten beste erakunde eta eragile batzuk	Edukia	Aurrekontu kalkulatuak
	zeari buruzko ikerketa proiektua, genero ikuspegitik.	Euskal Herriko Unibertsitatea.	keta eta gogoeta lan operatiboa sustatzea bizikleta bidezko mugikortasunaren arloan, geroago argitalpen teknikoan bilduma bat argitaratzeko.	aurrekontuan sarturiko zenbatekoa, maketazioa, itzulpena eta inprimaketa salbu.
	Gipuzkoako bizikleta baliabideen mapa bat egitea.		Mapa hau gipuzkoabizikletaz.eus web gune berrian sartuko da, eta Gipuzkoan dauden eta txirindularientzat diren azpiegiturak, zerbitzuak eta baliabideak jasoko dira (bidegorriak, bizikleta aparkalekuak, taillerak, dendak, alokairu guneak, etab.).	Ez du sortzen berriazko gasturik, web gunea berrietzeko lanetan sartuko litzatekeelako.



4. AURREKONTUAREN LABURPENA

4.1 Ardatz estrategikoen arabera

	Aurrekontua	%
1. ardatz estrategikoa. Udal azpiegituren eta zerbitzuen sareak osatu eta hobetzea		
2. ardatz estrategikoa. Foru azpiegituren eta zerbitzuen sareak osatu eta hobetzea		
3. ardatz estrategikoa. Bizikletak galtzadetan sartzea: trafikoa lasaitzea		
4. ardatz estrategikoa. Bizikletaren eta motordun ibilgailu kolektiboen intermodalitatea hobetzea		
5. ardatz estrategikoa. Bizikleta turismorako eta naturara iristeko aukera bihurtzea		
6. ardatz estrategikoa. Bizikleta eguneroko jarduera fisiokoan eta osasunean sartzea		
7. ardatz estrategikoa. Bizikleta bidezko zirkulazioa sartzea ikasleen prestakuntzako elementu gisa		
8. ardatz estrategikoa. Bizikleta sartzea laneko zentroetara iristeko		
9. ardatz estrategikoa. Bizikletaren eta mugikortasunaren gaineko pertzepzio soziala aldatzea		
10. ardatz estrategikoa. Bizikletari babesa emateko plangintza eta arau esparru bat sortzea		
11. ardatz estrategikoa. Bizikletaren politika kudeatzeko tresnak sendotzea edo sortzea		
GUZTIRA		

